

## ITSASERTZA

BIZKAIA

B.1

### Gaztelugatxe



**Oro har gorabehera gutxikoa den** gure itsasertzeko toki ederrenetako bat da. Zati txiki honetan haitzen gogortasunak penintsula txiki batez, Aketxekoa eta beste uhartetxo batzu eta itsasoko hegaztiak habia jartzeko aprobetxatzen dituzten itsaslabar helezinez osatutako paisaia ikusgarria eragin du. Haizeak eta olatuek bertako landaredia baldintzatzen dute; izan ere, olatuei

eta gazitasunari egokitutako landareak dira.

Gaztelugatxeko itsas hondoa aberastasunak, arrantza—jarduera biziko eremu izanik mirariz kontserbatu denak, mendeetan zehar hemengo jendearentzat gune honek izan duen izaera mitiko eta sakratuaz hitz egiten digu; izaera horren lekuko ditugu antzinako istorio eta kondairak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Biotopo Babestua (1998) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

#### LANERAKO GAIK

- Euskal kostaldearen geomorfologia. Paisaiaren elementuak: itsasoa, itsaslabarrak, penintsula, Aketxe, abrasio—plataforma.
- Uraren eta itsasoaren zikloa: ur geza eta gaziak, olatuen eraketa, mareak.
- Itsasoko flora eta fauna: algak, arrainak, omogabeak, San Juan arrainkumeak sartzeko toki gisa.
- Itsasoko hegazti—fauna. Hegaztien behaketa zuzena (espezieak, morfologia, elikadura, azturak).
- Itsasoaren kutsadura: Petrolioia eta bere deribatuak. Prebentzioa eta konponbideak.
- Inguruko turismo—jardueraren eragina: ingurunean baimendutako eta debekatutako jarduerak, araudi bat izateko arazoak.
- Erabilera tradizionalak: arrantza, itsaski—bilketa, arrantzak gune horretan duen garrantzia, arrantzalearen bizimodua, Kofradiak.
- Nekazari—herri bat eta arrantzale—herri bat: Bermeo eta Bakio.
- San Juan basiliza: historia, kondaira eta folklorea.